

# Tabakoaren aurkako politikak, eraginkorral dira gazteekin?

Ikerketa honen arabera, tabakoaren aurkako politikak %3 inguru murriztu dezakete ohiko erretzaileak diren nerabeen proportzioa. Autoreek desberdintasun nabarmenak antzeman dituzte mutil eta neskekin eraginkorral diren neurri dagokionez.

HUBLET, A. ETA BESTE BATZUK.

ASSOCIATION BETWEEN TOBACCO CONTROL POLICIES AND SMOKING BEHAVIOUR AMONG ADOLESCENTS IN 29 EUROPEAN COUNTRIES. *ADDICTION*, 104 ZBK., 1.918-1.926 OR., 2009.

Munduko Bankuak 1999-an argitaratu ikerketa baten arabera, bost dira tabako erabilera murrizteko politika eraginkorrenak: prezioen igoera, leku publikoetan erretzeko debekua, tabako iragarkien arautzea, tabako kaxetan osasun oharrak ipintzea eta tabakismoaren aurkako tratamendua. Gaur egun, Europako herrialde gehienek dute neurri hauetakoren bat indarrean eta, beraz, politika desberdinek, oro har, tabako erabileraren prebalentzian duten eragina ezagutzeko aukera dago. Artikulu honetan, Europako 29 herrialdeetan tabakoaren eskuragarritasuna mugatzeko indarrean diren politikak nerabeen arteko erabilera murriztea lortzen ote duten aztertzen dute autoreek.

Ikerketarako datuak 2006-ko HBSC edo Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko ikerketatik hartu dituzte. OME-k sustaturiko proiektu honetan munduko 41 herrialdeetako 210.000 ikasle inguruk hartzen dute parte eta iturri baliotsua da, tabakoa edo droga erabilera bezala, osasunarentzat kaltekor izan daitezkeen ohiturei buruz nazio mailako adierazgarritasuna duten datuak lortzeko. Ikerketa honetan, 2006. urteko datu bilketan jasotako 15 urteko gazteen tabako erabilera eta familiaren egoera ekonomikoari buruzko informazioa erabili dute autoreek, guztira, 52.000 pertsona eta 29 herrialdeetako datuak bilduz.

Banakako datu hauek 29 herrialde horietan indarrean diren tabakoaren aurkako politikak buruzko informazioarekin gurutzatu dituzte. Horretarako, Joossens eta lankideek 2006-an garaturiko eskala bat erabili dute, zeinak herrialde desberdinek tabakoaren prebentzioaren arloan mantentzen duten jarduera neurtzen baitu. Zehazki, lau izan dira kontutan harturiko neurriak: tabakoaren prezioa (0-tik 30 puntura, Marlboro eta herrialde bakoitzeko tabako markarik ezagunenaren prezioak BPG-aren aldean suposatzen duenaren arabera); leku publikoetan erretzeko debekua (22 punturaino, lantokietan, kafetegi eta jatetxeetan, garraioetan eta beste toki publiko batzuetan erretzea debekatua dagoenaren arabera); marketinaren arautzea (13 punturaino, telebistan, kalean, prentsan, salmenta puntuetan, irrartian edo interneten tabakoa iragar-

tzea baimentzen denaren arabera) eta makina bidezko salmentaren inguruko araudia (debekatua, zenbait lekutan debekatua, edo debekurik ez dagoen kontutan hartuz). Neurri hauen arabera, tabakoaren aurkako politika zorrotzagoak dituzten herrialdeetan ohiko erretzaileak diren gazteen proportzioa txikiagoa ote den aztertu nahi dute autoreek.

Ikerketaren emaitzek erakusten dutenez, aztertutako lau neurrietatik prezioarengan eragiten duten politikak eta makina bidezko salmenta mugatzen dutenak soilik dute nolabaiteko eragina gazteen tabako kontsumoan. Beste bi neurriak –marketinaren arautzea eta leku publikoetan erretzeko debekua–, helduekin eraginkor izan arren, ez dute, dirudienez, efektu bera gazteengan. Bestalde, prezioei loturiko politikak mutilen artean ohiko erabiltzaileen proportzioa murriztea lortzen duten bitartean, ez da horrela gertatzen neskekin, behar bada, tabakoa erosi ordez, beste iturri batzuetatik lortu ohi dutelako.

Autoreen ustez, tabakoaren aurkako politikak garatzeko orduan garrantzitsua da, lehenik eta behin, politika horien eraginkortasuna neurtzea, baina ez helduengan soilik, baita gazteengan ere, datuen arabera ez baitirudi helduekin eraginkor diren politika guztiek gazteentzat ere balio dutenik. Bestalde, kontutan izan behar da gaur egun Europa mailan indarrean dauden neurrietatik batek soilik erakutsi duela, ikerketa honen arabera, neska gazteen kontsumoa murrizteko nolabaiteko eraginkortasuna. Gaur egun, gazteak eta emakumeak tabako kontsumitzaile porrokatuenak bihurtzen ari diren honetan, ez dago emaitza hauekin ezikusiarrena egiterik.

## Tabakoaren aurkako neurrien aplikazioa (puntuak) eta gazteen ohiko erabilera Europako zenbait herrialdeetan

	A	B	D	E	F
Alemania	20	2	4	mugatuta	19,6
Danimarka	17	3	10	baimenduta	15,0
Erresuma Batua	30	1	11	mugatuta	17,3
Spainia	12	3	3	mugatuta	17,7
Finlandia	18	12	13	mugatuta	21,9
Frantzia	23	6	11	debekatuta	18,5
Italia	16	17	10	mugatuta	19,8
Herbehereak	16	9	12	mugatuta	18,2
Portugal	17	5	10	mugatuta	10,8
Suedia	19	15	13	mugatuta	8,6

A. Prezioa (geh. 30 puntu). B. Toki publikoetan debekua (geh. 22 puntu). D. Marketinaren arautzea (geh. 13 puntu). E. Makina bidezko salmenta. F. Ohiko erretzaileak (%tan).